BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

4044

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 1ekoa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariarena, zeinen bidez, batetik, xedatzen baita PCA-204-2012-VI administrazio espedientea -prozedura laburtuko 143/2012-R administrazioarekiko auzi errekurtsoari buruzkoa- Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6. Epaitegira bidaltzea, eta bestetik, epatzen baitira balizko interesdunak, epaitegi horretan ager daitezen.

Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6. Epaitegiak PCA-204-2012-VI administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du, zein izapideetan baitago profesional-zenbakiz 01022 duen ertzainak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2012ko ekainaren 4ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako 143/2012-R prozedura laburtuan. Ebazpen horren bidez ezetsi egin zen beste ertzain bati zerbitzu-eginkizunetan jarduteko lanpostu bat esleitzen zion Giza Baliabideen zuzendariaren Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa.

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6. Epaitegira bidaltzea eskatutako administrazio-espedientea.

2.– Prozedura honetan interesa dutenak epatzea, egoki baderitzote, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6. Epaitegian ager daitezen –143/2012-R prozedura arruntean–, eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 1a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.